



KUTXA Enplegatuen Elkarte	Xenda-zaletasun atala
118. zka 6. Etapa GR-38	Urbina - Otxandio 2016/9/17-18

Adiskide mendizaleok:

“Ardoaren eta Arrainaren Bideko” seigarren etapa dugu hau, Urbina eta Otxandio herrien artekoa. Goia in industrialde garrantzitsuaren ondoan dagoen herri txiki honetatik irtengo gara, Legutianora joateko. Herri honen sorrera-gutunean, 1333an, historian zehar izan dituen bi izenak agertzen dira: Legutiano/Legutio eta Villarreal de Álava.

Legutianon osteratxo bat eginda, Erdi Aroko hirien egitura ikusiko dugu. Gaur egun, hiribilduko sarrera bakarrik dago, antzinako portalea arku zorrotz bikoitzarekin, hiribildua ixten zuten harresi zaharren aztarna. Azpimarratzekoa da San Blas parrokia, jatorrizko Erdi Aroko tenplua, XVI. mendean berreraikia; jatorrizkoa XIV. mendekoa izango zen ziur asko, baina haren ojiba-portale irekia bakarrik geratzen da mendebaldeko piñoi edo horma pikoan, estradosetan galburu gisa jarritako kordoiz apaindua. Baditu elkaturiko eraikin batzuk, beranduagokoak. Ondare higigarriari dagokionez, nabarmentzekoa da ponte edo bataiarria, leuna eta moldurazko oina duena.

Gero, 4 hm³-ko edukiera duen eta 1945ean egin zen Albiñako urtegira iritsiko gara, ezkerretara Urrunagakoa dugula. Aurrerago Mirugain (734m) mendi-hegalean zehar ibiliko gara, eta San Bernabe baselizarantz joko dugu, Otxandioko sarreran dagoelarik. Herri honen izena lehen aldiz XII. mendean agertzen da dokumentatuta ‘Ochandio’ gisa, Nafarroako Antso Jakitunak Durangaldeari emandako foruan. Hiribildu-izaera XIII. mendearen hasieran eman zitzaion herriari.

Uribarrena kaletik sartuko gara herri-gune historikora, eta ibilbidea Plaza Nagusian amaituko dugu; bertan interes handiko eraikinak daude: udaletxea, Santa Maria eliza, pilotalekua, Vulkanoren iturria, bolatokia eta abar.

Animo, mendizaleok, natura zain dugu eta!!!

Ibilbidea: Urbina - Otxandio

Beharrezko denbora										4,30	
Goranzko desnibel metatua										410 metro	
Beheranzko desnibel metatua										365 metro	
Zeharretara egin beharreko distantzia										16.590 metro	
	Inguru	1		Orientazioa	1		Joan-etorria	1		Esfortzua	3

Irteera-lekua	Bilbo plaza (Bus geralekua 17/24) eta Pio XII.aren plaza (Bus geralekua 24/27)
Aurkezteko ordua	07:50 (Bilbo plaza) eta 08:00 (Pio XII.aren plaza)
Irteera-ordua:	08:00 (Pio XII.aren plaza)
Bazkaria	Xxxxxxx jatetxea.
Prezioa	30 euro

Izena emateko azken eguna: 2016-9-15eko 12:00etan

Oharra: a/Ez badago gutxieneko parte-hartzaile kopururik, irteera bertan behera geratuko da.

b/ Eguraldiaren iragarpena txarra izango balitz larunbaterako, igandean egingo litzateke ibilaldia.

Izen-emateak egiteko: Alberto Lahuerta (656-721.208/Senderismodad@gmail.com) eta José Ignacio Acuña (943-31.02.52/joseig15@gmail.com).

DAD/Senderismo/Kutxa/Alberto Lahuerta-José Ignacio Acuña